



Unai Iturriaga eta Igor Elortza Zaldi urdina antzerki obraren testugileak, Durangon. MONIKA DEL VALLE/FOKU

Axut, Dejabu eta Artedrama konpainien 'Zaldi urdina' antzezlari berrirako testua idatzi dute Unai Iturriagak eta Igor Elortzak, dokumentazio lanetik eta aktoreen esperimentazioetik abiatuta. Bihartik igandera bitarte, Donostian izango da obra.

## Lau esku, gorputzez esandakoa idazteko

### Itziar Ugarte Irizar

Luhuson (Nafarroa Beherea) abiatu zuen zeharkaldia, eta abian doa *Zaldi urdina*, egutegia bete gero. Hurrengo, Donostian: bihurtu igandera bitarte, iluntzerorako erakutsiko dute antzezlari Gazteszenan. Bost emanaldi gutzira. Ximun Fuchsek zuzendu du Axut, Dejabu eta Artedrama konpainiek elkarlanean osatutako laugarren obra, eta Unai Iturriaga eta Igor Elortza arduratu dira testua idazteaz. Nabardura behar du horrek, baina, antzezlariaren kartelean berean aitortzen denez: Iturriagak eta Elortzak idatzi ez,

Iturriagarekin eta Elortzarekin idatzitako obra da. Eta dena aldatzen du atzizkia aldatzeak.

Bi sortzaileek hirugarrenez egin dute lan hiru konpainiekin. *Errautsak*-en ondoren, *Franco-ren bilobari gutuna*-ren testua idatzi zuten, eta, hain justu, obra haren azken emanaldian, Ondarroan (Bizkaia), proposatu zien Fuchsek hurrengo obrarako gaiak: drogak. Drogek Euskal Herrian irekitako zauria bistaratzea, eta gaur egun haiei buruz aritzean sor daitezkeen galderak plazaratzea. Gau haren ostean denbora bat elkartu gabe egin bazuten ere, gaur egun samar geratu zela gogoratzen dute biek. Elortzaren esanetan, «ezer egiten jarri au-

rretik, izena eta guzti zuen proiektuak». Skype bidez lehen bilkura bat egin zuten hurrengo, beste bat aurrez aurre Durangon (Bizkaia), eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntzak eskatzeko epea heltzerako, zehaztuta zeuzkaten lehen oinarriak: tramaren abiapuntua, pertsonaia batzuk, eta baita *Zaldi urdina* izenburua bera ere. «Diru laguntza horiek gabe, Euskal Herrian ez dago aukerarik halako lanak egiteko», oharra Elortzak.

Hor hasi zen sormen prozesua bizilagotzen: gaiaren gainean ahal beste dokumentatuz eta norbere esperientziaren hustuketa eginez. «Axut, Dejabu eta Artedramakoei gustatzen zaie, batetik, gai guz-

tiak euskaraz eta euskaldunoi zuzendutakoak izatea; eta, bestetik, gaia edozein delarik ere, antzezlariaren parte hartuko dugun denok, izan aktore, idazle, zuzendari, hastetik bertatik inplikatzeko; gutako bakoitzak zer bizipen izan ditugun, zer irakurketa, zer film...», azaldu du Elortzak.

Justo Arriolaren *A los pies del caballo*, Uxue Alberdiren *Jenisjoplín* eta *The Corner* telesaila izan dituzte, besteak beste, esku artean. Behin hori guztia bilduta, aktoreen egonaldiekin hasten da obra forma hartzen. Bizpahiru hiletik behin, astebete igarotzen dute elkarrekin, non gutxi gorabehera zizelkatuta dauden pertsonaia martxan jartzen dituen taldeak, inprobisazioak lantzen eta eszena proposamenak probatzen. Iturriagak eta Elortzak taldea egonaldiaren azken egunean

### Aktoreek oholtzan egindako «esperimentazioaren» ondotik hasten dira Iturriaga eta Elortza obraren testua sortzen

bisitatzen dute normalean, eta ikusitakotik hasten dira ideiak jaso eta idazten. «Batzuetan, inprobisazio hutsetik abiatu daitezke eszena bat; beste batzuetan, Unai eta nik proposatutako egoera edo testu bat taulara eramaten dituzte. Joan-etorri hori etengabea

izaten da bukaera arte», azaldu du Elortzak. Baina edozein kasutan, idazketa ondotik dator beti. Iturriaga: «Idazketa antzezlariaren esperimentazioaren ostetik doa. Beti da *a posteriori*».

### Korapiloak, ixterakoan

Maiatzean iritsi zitzaizkien itxi gabe zeuden eszenak itxi eta lotu gabeko hariak lotzeko unea. Behin betiko idazketari heltzeko. Aktoreek uda aurretik jaso behar zuten testua, uda osteko azken egonaldian dramaturgia eta testu gaindikoa gainontzeko alderdiak sartzeko baitira prozesura. Puntu horretara helduta kezka dezente izan zituztela aitortu dute egileek. Hasteko, gaiagatik beragatik. Elortza: «Ertz diferentek dituen gai bat da drogarena: historia humanoa dago, bakoitzak drogen aurkeztean har ditzakeen hautak; badaude drogen inguruan mugitzen diren interesak ere, ekonomikoak, politikoak; 1980ko Euskal Herria eta heroinaren kasua kontuan hartuta, horrek familietan, herrietan eduki duen eragina, eta zenbateraino geratu diren etxe barruan, estigmatizatuta, pertsona horien bizitzak eta, kasu larrietan, heriotzak. Gai delikatuak dira, buruhauste dezente eragiten dutenak».

Gaiarekin nola, istorioa kontatzeko aukeraturako generoarekin ere aritu dira borrokan. Aingeru izeneko gazte baten bilaketa da abiapuntua; tekno jaialdi batean *zaldi urdina* izeneko droga bat saltzen dio beste gazte bati, eta koman sartzen da hura. Orduan egiten du alde Aingeruk, eta atzera kontakteta bat bihurtzen da kontaktuzuna. Elortza: «Hasieratik aukeratu genuen *road movie* bat izango zela, eta horrek lege batzuk betetzea eskatzen du; aurreko antzezlariaren ez zitzaizgun gertatzen hori». Korapilo horiek aske izateko, bi egun igaro zituzten idazle biek, Fuchsek eta zuzendari laguntzaile modura aritu den Ainaro Gurrutxagak, fuchstarren gurasoenean, Larzabal (Nafarroa Beherea). «Egun bitan apenas idatzi genuen ezer; eskema bat. Baina han erabakiziren gauza inportanteenak. Gero, guk beste hila bete bat eduki genuen han adostu eta eskematizatutako gidoi hari, haur zur hari, haragia jartzeko».

Dokumentazio lanak garrantzi handia izan badu ere, hasieratik oso garbi izan dute gaur eguneko girotutako istorio bat izango zela. «Ez da 80ko urtean gaineko istorio bat; entzun dut dezente heroiari buruzko obra bat dela, eta ez